

Amurizak kontatua

Joxean AGIRRE

Gogoangarriak iruditzen zaizkigun pasadizoen artean badago genero bat heriotzarekin lotura duena. Protagonistak hiltzeko zorian daudela-ko edo, kontakizun horiek are ederra-goak iruditzen zaizkigu. Lehen ere uste dut aipatu izan ditudala, baina batzuk aipatuko ditut. Gipuzkoako EH-NEko buruetako bati entzun nion, mitin batean bere aitonari buruz zioena: bizitza osoa lanean eman ondoren, hiltzeko ordua iritsi omen zitzaion eta, uda izango zen nonbait, «hainbeste lan baserrian eta beste mundura joan behar al diat?» esan omen zuen.

Aitak umetan kontatzen zigunez, Patxi Iturzaeta auzoko bertsolariak bertso sorta autobiografiko bat zuen prestatuta heriotza iristen zitzaionerako, eta larritu zenean, bere alaba Justa jarri zuen

idazten. Zailtasun handiekin izan bazen ere, diktatu egin zizkion. «Elizaldetar Frantzisko Mari / Iturzaeta deritza / ofiziorik printzipalena / izan du nekazaritza» hasten dira; Googlen aurki daitezke. Udarregik antzeko zerbait egin zuen, eta Sokin (Jose Inazio Odriozola) bertsolariak ere bai, «Heriotzako orduan» izenekoa; entzuna dudanez, umorezko ale batzuk sartu zituen.

Auntxa trikitilaria Santa Luzia egun batez hil zen, eta pieza bat jotzen ari baltz bezala mugitzen omen zituen behatzak. Egundorretan Urretxuko plazan izan ohi zen Sakabi eta Elgetarekin, eta haiekin jotzen ari zela egingo zuen amets beharbada.

Xabier Amurizak orain gutxi bazkaloste batean kontatu ziguna ere gordetzeko modukoa da. Sakoneta harri-jasotzaileak (Aulestiko Zuberoa auzoko

Uxarte baserrikoa zen, gerra aurretik EAJren mitinetan harriarekin ibiltzen zen) entrenatzeko harriak omen zituen ukuiluan, horietako bat inoiz jaso gabea, eta hura jasoko zuen gizonik ezagutu gabe hiltzeak pena ematen ziola esaten omen zuen. Gaixorik zegoela entzun zuen Agerre gazteak (Luis Lopetegui, izen bereko entrenatzailearen osabak) eta gizonaren kapritxoaren berri izanik, baserri horretara joan omen zen eta, aproba batzuk egin ondoren, jaso zezakeela erabaki omen zuen. Harri-jasotzaile zaharra ohetik hartu eta jaitsi omen zuten ukuilura; eta gazteak jasosaldia egin zuen. Hain egoki jaso zue-nez, bigarrena ere jaso zezakeela iradoki omen zion, eta Agerre gazteak bigarrenez jaso zuen. «Orain joateko konforme gelditzen nauk» esan omen zion, eta ohera itzuli omen zuten. •

Eguraldiaz

**Amagoia
MUJIKA TELLERIA**

Ez baduzu eguraldiaz hitz egiteko gogorik, begiratu puntu gorri honi». Horixe irakurri nuen behin igogailu batean. Izan ere, igogailuetan eguraldiaz hitz egiten da. Beste toki batzuetan ere hitz egiten da eguraldiaz; harategian, arrandegian, ile-apaindegian, tabernan... Isiluneak pisuak egiten diren tokietan hitz egiten da eguraldiaz (honi lotuta, uste dut gero eta lasaiago egoten direla bi ezezagun elkarren ondoan hitzik egin gabe. Garai batean solasaldiak ez ote ziren errazago pizten...).

Tira, eguraldira bueltatuz, sentsazioa daukat azkenaldian toki guztietan hitz

egiten dela eguraldiaz. Ez dakit adina izango ote den, agian gazteagotan ez genion hainbeste garrantzi ematen. Baina eguraldia bada gure gai bat, janaria eta edaria diren bezala. Oporretara joan, etxekoei deitu eta betiko galdera, «zer eguraldi daukazue hor?». «Eta zuek hor?», bueltan.

Gure auzoan bazen emakume bat udan herritik ateratzen ez zena. Gaztetan dezente bidaiaitutakoa zen, baina zahartzaroak ekarritako nekeekin nahiago zuen uda zein negu etxe bueltan gelditu. Ingurukoren bat oporretan joana zela jakin orduko altxatzen zuen telefonoa, «zer eguraldi daukazue hor?».

Eta gero auzo osoari kontatzen zion bazter bakoitzean zein eguraldi zegoen, batek eta besteak kontatuta. Bere bidaia-
tzeko modua bilakatu zen hori, bazter desberdinetan zein eguraldi zegoen deskubritzea.

Beroa, hotza, haizea, sargoria, hezeta-suna, euria... orain dena da albiste. Eguraldia albiste, herritarrentzat alpiste. Horri begira gauden artean, beste gauza batzuk ez ditugulako ikusten. Akaso gure baserritarrei jaso diegu zerura begira bizitzeko jarrera. Hobe genuke haiek eguraldiarekin batera bizitzeko daukaten jakintza eta patxada ere jaso bagenitu. Dagoenean, bonbon. •